


ERMUKO «EMAKUMEAREN ELKARTEGIA» PROMOZIO BIDEETAN



600 emakumetik gora pasatu dira
Elkartegi honetatik.

Ermuan, nork ez dau ezagutzen «Emakumearen Promozio Elkartegia»? (Centro de Promoción de la Mujer, erdaraz deritzona). Orain dela hogeitau urte sortu zan gure herria Elkartegi hau, eta ez alperrik. Seirehun emakumek, gutxi gora behera, egin dabez promozio-ikastaroak.

Ikastaroetara, emakumeak zein interesez bultzatuta datozen jakin ahal izateko, inkesta bat egiten jake kurtso hasieran. Orokorrean, hauexek izaten dira erantzunak:

— Etxe zulotik urten eta eguneroko ohiturarekin apurtu.

— Gauza barriak ikasi eta beste emakumeekin hartu-emonak izan.

— Ikuspegi zabalagoa lortu...

Ikusten denez, emakumea ez da etxeko lanekin bakarrik konformatzen, badabez beste premina batzu be.

Ikastaroen helburu eta egitaraua

Oraindino, nahi ta nahi ez, emakumea — eta batez be etxeko andrea- gauza askotarako gertatuta egon behar da. Zenbat zeregin bere eskuetan!

Hau kontutan hartuta, Elkartegiaren egitaraua emakumearen bizitza eta preminetan onarrituta dago, baina helburu nagusia nauxe da: emakumea, emazte

Zaldi Harategia

AGUSTIN EGIA

**Okelarik finena
Preziorik hoberena**

Diputazio kalea, 3
Tfnoa. 17 36 48

eta ama baino lehenago, PERTSONA DALA kontzientzia lortzea.

Hemendik sortuko da emakumearen eskubideen alde jotzea, pertsona moduan baloratzea, noreberaren kalitateak ezagutzea eta lantzea...

Hona hemen bi ikasturteko egitaraua

Oinarrizko ezaguerak: kultura orokorra, elikadura, preminatasunezko sendabidetza.

Bi ikasturte hauek amaitu eta gero, nahi dabenak, «Eskolartasuna» eta «Eskola Graduatua» egin daitez (Certificado eta Graduado deritzenak).

Oso pozgarria da, emakumeen artean premina barri batzu sortzen dirala ikus-tea. Azkenengo urteotan, kultura gehit-zeko premina igartzen da. Gero eta «Es-kola Graduatua» gehiago egiten da. Aur-ten, hogeitabost emakumek, bereziki, dihardue ikasketa hauek egiten. Baita

zonak» izan dirala senarrak, eta hau be promozino barruan sartzen da.

Ikusten denez, Emakumearen Elkar-tegian ikasi eta ondo pasatu be egiten da.



Erakuntza pertsonala: Balio etikoak, pertsonaren eboluzioa eta heldutasuna, helduen psikologia, talde dinamika.

Familiarekiko argibideak: Familia-ko alkarbizitzaren gora-beherak, seme-alaben heziketa.

Gizarte formazioa: gaiak, partaide-tasuna...

Lan praktikoak: Eskulangintza, su-kaldaritza...

Kultur-bisitak: museoak, oroitga-riak...

Gaiak, metodologi aktibo baten bidez erabiltzen dira. Emakumeen aportazioak garrantzi handia dauka. Gaiak, taldeka eztabaidatu ostean, euren eritziak danen aurrean iragartzen dabez.

euskara ikasteko gogoia sortzen ari da. Gehienak erdaldunak diranez, premina-tasun hau ikusten dabe. Batzuk badihar-due ikasten; beste batzu datorren kur-tsoan hasteko asmoarekin.

Elkartegian «juergak» be bai

Noiz behinka, dinamika aldatu egiten da. Ikasketen orde, merixendatxo batzu antolatuz alkarrekiko hartu-emon alai bat sor daian, «juergak» osasunerantzat be on-onak dirala kontutan izanik.

Kurtso amaieran, txango edo eskursino batzu be antolatzen dira. Aurten gainera, lehenengoz, egun bikoak be izan dira, Asturiasera hain zuzen. Honek esan nahi dau egun bi horreetan «etxeko gi-

Datorren urterako euskara be ikasi ahal izango da bertan.